



Guztira 120.000 erreferentzia eta erregistro biltzen dira Gipuzkoako artxiboan argazkiak: Imanol otegi / argazki press

Agirien gotorleku

Gipuzkoako ehunka dokumentu jasotzen dira Tolosan dagoen Artxibo Orokorrean

Ainara Arratibel

Agiriz betetako 3 kilometro, 120.000 erreferentzia. Horixe Gipuzkoako lurralde historikoaren gobernu erakundearen artxiboa: Gipuzkoako Artxibo Nagusia. Datu gordin horien atzean, ordea, balio eta esanahi administratibo, historiko eta kultural handia duten agiriak daude. Guztiak Gipuzkoakoak, guztiak bisitarien eskura.

Agirien antzera, Gipuzkoako Artxibo Orokorra historia luzea du. 1397an errotu zen Gipuzkoako Anaitasunak bultzatuta. «Artxiboa dauden agiririk zaharrenak hark sortutakoak dira. 1398koa da hemen gordetzen dugun lehen agiri», dio artxiboko zuzendari Gabriela Vivesek. Hasieran eskribau fidelak ziren Anaitasunaren agiriak gordetzen zituztenak: «Kargu hura, ordea, ez zen biziartekoa; al-

datuz zihoan». XV. mendearen erdialdean, ordea, eskribau finko bat izendatu zuten: «Horrela hobeto zaintzen eta gordetzen ziren Anaitasunaren agiriak».

Artxiboa sortzeko lehen urratsa zen hura. Artxibo hark ez zuen egoitza finkorik izan 1530era arte. Urte hartan agiriak Tolosako Andra Maria elizan gordetzea erabaki zuten Gipuzkoako Batzar Orokorrek. Besteak beste, aldarean, koron eta sakristia zaharrean eduki zituzten jasota. Lekua txiki geratu zen denborarekin: «Gainera, haien kontserbazio baldintzak nahiko kaskarrak ziren, hezetasuna dela eta». Horrela, 1728an sakristia berrira eraman zuten agiritegia. 1904tik artxiboak erakin propioa izan zuen Tolosako San Frantzisko ibiltokian: «Hormigoi armatuz eginda zegoen eraikina, eta hala agiriak suteetatik babesten ziren.

Kontserbaziorako baldintzak ere bikainak ziren». Orduz geroztik artxiboa han dago; 1986. eta 1990. urte bitartean, lanak egin ziren egoitzan, aurrerakuntza berrienez hornitzeko.

Baina zergatik sortzen dira artxiboak? Ez soilik arrazoi eta interes kultur eta historikoengatik, zerbaiteko balio duen dokumentazioa ere biltzen duelako: jabetza, eskubide edo erabaki bat frogatzeko, adibidez: «Denborarekin, agiriak balio hori galtzen dute, eta daukaten esanahi historiko eta kulturalagatik dira garrantzitsuak. Horiei esker, atzera begiratu eta gure historia ezagut dezakegu».

Guztira 120.000 erreferentzia eta erregistro biltzen dira Gipuzkoako artxiboan. «Horrek ez du esan nahi beste horrenbeste agiri daudenik. Izan ere, erreferentzia bakoitzean agiri bat baino gehiago egon daiteke». Agiriak funtsetan banatuta daude. Alde batetik, Diputazioaren eta Batzar Nagusiaren funtsa dago. XV. mendetik XX. mende bukaerara arte bierakunde horiek sortu eta



Agiriak gordetzen dituzte biltegiak.